

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko uztailaren 6ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 707809.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/707809>).

Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Eskaerak jasotakoan, Udalak gehienez ere astebeteko epean ebatziko ditu, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera, salbu eta zuzendu egin behar badira; kasu horretan, eskaera egiteko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkezten den datatik aurrera hasiko da zenbatzen epea.

Epe hori igarotzean ez bada ebazpenik ematen, eskatzaileak eskaera ezetsitzat jo ahal izango du. Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta posta ziurtatu bidez jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Amurrio, 2023ko uztailaren 11

*Jarduneko alkatea*

**ESTIBALIZ SASIAIN FURUNDARENA**